1/2023 Ebazpena, abenduaren 8koa.

Espedientea: RMT 1/2023.

PRESIDENTEA: María Barrena Ezcurra.

MAHAIKIDEA: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

ORDEZKO IDAZKARIA: Juan Carlos González Olea.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunari buruzko Gaietako Erreklamazioen Batzordeak, lehen aipatutako kideek osatuta dagoenak, andreak formulatutako erreklamazioari buruzko EBAZPEN hau jaulki du. Ebazpen hori Gizarte Ekintza Saileko Administraziorako eta Gizarte Sustapenerako zuzendari nagusiaren 2023ko urtarrilaren 18ko Ebazpenari lotuta dago. Txostengilea Maria Barrena Ezcurra andrea izan da eta Batzordearen iritzia adierazten du:

## AURREKARIAK

LEHENENGOA. 2022ko abenduaren 19an andreak informazio publikoa eskuratzeko eskaera aurkeztu zuen, honako hau adieraziz:

*"Osatuz programarako Onarpen Batzordearen 2022ko irailaren 5eko Ebazpenari dagokionez, gure semea den ez onartzea jakinarazten digunari,*

*amak, helbidea .ean duenak, honako informazio hau eskatzen dut:*

*1.- Argi eta garbi adieraztea zein irizpide erabili diren laguntza hori ukatzeko edo emateko erabakia hartzeko.*

Resolución 1/2023, de 8 de marzo.

Expediente: RMT 1/2023.

PRESIDENTA: María Barrena Ezcurra.

VOCAL: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

SECRETARIO SUPLENTE: Juan Carlos González Olea.

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente RESOLUCIÓN ante la reclamación formulada por DOÑA , en relación con la resolucion de 18 de enero de 2023 de la Directora General de Administración y Promoción Social del Departamento de Acción Social. Actúa como ponente Dña. Maria Barrena Ezcurra, quien expresa el parecer de la Comisión:

## ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO. Con fecha 19 de diciembre de 2022, DOÑA presentó solicitud de acceso a información publica en la que señalaba:

*"Con relación a la resolución de la Comisión de Admisión para el programa Osatuz, de fecha 5 de septiembre de 2022, en el cual se nos notifica la no admisión de nuestro hijo*

*como madre de con domicilio en , solicito la siguiente información:*

*1-Detalle de forma clara y precisa los criterios utilizados a la hora de tomar la decisión de denegar o conceder la referida ayuda.*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4SKZ-N1Q5-SKWN-YQVT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

*2- Erabilitako irizpide bakoitzari egiletsitako baremazioa.*

*2-La baremación otorgada a cada uno de los criterios utilizados.*

*3- Kontzeptu bakoitzarengatik gure espedientean lortutako guztizko puntuazioa.*

*3- La puntuación total obtenida en nuestro expediente por cada uno de los conceptos.*

*4- Datu pertsonalak bereizi ondoren, gainerako eskatzaileek lortutako puntuazioa eta eskaera guztiekiko dugun posizioa.*

*4-Previa disociación de los datos de carácter personal, la puntuación obtenida por el resto de los solicitantes y nuestra posición respecto al conjunto de solicitudes.*

*5.- Gure espediente osoa eskuratzea, parte hartu duten gainerako administrazio-organoek jaulki dituzten txostenak barne, eta, hala badagokio, ukatzeko oinarri izan den txostena barne. Ahal izanez gero, espediente horren kopia".*

*5-El acceso a nuestro expediente completo, incluyendo los informes que se han emitido por el resto de los órganos administrativos que han participado, incluyendo en su caso el informe que ha servido de base para la denegación. En caso de ser posible , la copia de dicho expediente".*

**BIGARRENA.** Administraziorako eta Gizarte Sustapenerako zuzendari nagusiak 2023ko urtarrilaren 18an ebatzi zuen Dokumentazioa eskuratzeko aipatutako eskaera hori. Ebazpena era honetan jaulki zuen:

**SEGUNDO.** La citada solicitud de acceso fue resuelta el 18 de enero de 2023 por la Directora General de Administración y Promocion Social en la siguiente forma:

*1) Izapidetzeko ez onartzeko arrazoiak (22. artikulua eta horrekin bat datozenak): EZ da ikusten ez onartzeko arrazoi bakar bat ere dagoenik aurreikusitako ondorioetarako.*

*2) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko mugak: EZ da ikusten foru arau beraren 21.2 eta 20.1 artikuluetatik eratorritako inolako mugarik.*

*3) EZ da ikusten hirugarren pertsonen daturik dagoenik Foru Arauaren 20.5 artikuluan eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren ondorioetarako.*

*Horregatik, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 18. artikuluan eta horrekin bat*

*1) Causas de inadmisión a trámite (artículos 22 y concordantes): NO se aprecia la concurrencia de ninguna de las causas de inadmisión a tales efectos previstas*

*2) Limitaciones al ejercicio del derecho de acceso a información pública: NO se aprecia la concurrencia de ninguna de las limitaciones derivadas de los artículos 21.2 y 20.1 de la misma Norma Foral.*

*3) NO se ha advertido la existencia de datos de terceras personas a efectos de lo dispuesto en el artículo 20.5 de la Norma Foral y de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.*

*Por ello, en cumplimiento de lo previsto en los artículos 18 y concordantes de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4SKZ-N1Q5-SKWN-YQVT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

datozenetan ezarritakoa betez, eta titular naizen ahalmenak erabiliz, honako ebazpen hau ematen dut:

*EBAZPENA*

*Lehenengoa.- Baimena ematea andreari eskatutako informazioari buruz ditugun datuei buruzko informazioa eskuratzeko.*

*Bigarrena.- Informazioa eskuratzeko baimena honako hau da:*

*- Bizkaiko Foru Aldundiko Umeen Zerbitzua ez da Osatuz programa kudeatzen duen administrazioa, Osabide Hezkuntzarako Partzuergoari dagokio.*

*- Erakunde publiko horrekin harremanetan jarri gara eta adierazi digute planteatutako galderei erantzun dietela".*

**HIRUGARRENA**. 2023ko urtarrilaren 26an Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiak Batzorde honetara bidali zuen andreak aurkeztutako erreklamazioa. Idazki horretan honako hau jasotzen da:

*"Eskatutako informazioa eskuratzeko eskubidea aitortzen zidan 2023ko urtarrilaren 18ko ebazpenari dagokionez, honako hau adierazi nahi nuke:*

*Osatuz programarako Onarpen Batzordeak 2022ko irailaren 5ean egindako jakinarazpenari erantzunez, non jakinarazten zaigun gure semea den ez dutela onartzen, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu zen (errekurtsoa erantsi da), epearen barruan eta era egokian, 2022ko irailaren 14an, ebazpena*

*Transparencia de Bizkaia y en ejercicio de las facultades de las que soy titular, vengo a dictar la siguiente:*

*RESOLUCIÓN*

*Primero.- Autorizar a para poder acceder a la información relativa a los datos de que se disponen sobre la información que solicita.*

*Segundo.- La información cuyo acceso se autoriza es la siguiente:*

*- El Servicio de Infancia de la Diputación Foral de Bizkaia no es la administración que gestiona el programa Osatuz sino que éste corresponde al Consorcio de Educación Compensatoria.*

*- Puestos en contacto con esta Entidad pública, nos informan que ya han contestado a las cuestiones planteadas".*

**TERCERO.** El 26 de enero de 2023, la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia remite a esta Comisión la reclamación presentada por en la que se hace constar:

*En relación a su resolución de 18 de Enero de 2023 en la que se me reconoce el derecho a acceder a la información solicitada me gustaría manifestar lo siguiente:*

*En respuesta a la notificación recibida por parte de la Comisión de Admisión para el programa Osatuz, de fecha 5de septiembre de 2022 , en el cual se nos notifica la no admisión de nuestro hijo , se procedió a presentar recurso de alzada ( se adjunta recurso) en plazo y forma ,el día 14 septiembre de 2022, ante el mismo órgano*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4SKZ-N1Q5-SKWN-YQVT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

*jakinarazi zuen organo berean.*

*Errekurtso horretan, eta erakundearen zehaztasun ezagatik eta opakotasunagatik, zegokion informazioa eskatzen zen gure semea modu zuzen, objektibo eta ekitatiboan tratatu zela egiaztatu ahal izateko.*

*2022ko abenduaren 23an, gure harridurarako, Eusko Jaurlaritzaren ebazpen bat jaso genuen, legitimaziorik ezagatik errekurtsoa onartu ez izana eta errekurtso hori Bizkaiko Osabide Hezkuntzarako Partzuergoaren Batzarrari bidali izana jakinaraziz.*

*Gure errekurtsoa ebatzi ez denez eta erakunde honek prozesua beharrik gabe luzatzeko asmoa duela kontuan hartuta, informazioa Gardentasunerako eta Gobernamendu Onerako Kontseiluaren bidez eskatzen dugu.*

*Urtarrilaren 18an eskaera horren ebazpena jaso genuen. Bertan informazio hori eskuratzea ukatzeko arrazoirik ez zegoela adierazi ziguten eta Partzuergoarekin hitz egin zutela adierazi ziguten. Partzuergoak informazio hori eman zigutela adierazi zuen.*

*Azaldutako guztia kontuan hartuta adierazten dut ez dudala jaso eskatu dudan informazioa, erakunde honetatik jaso dudan bakarra 2023ko urtarrilaren 24ko mezu elektroniko bat da eta horretan berriz ere modu generikoan erantzuten didate, ezer zehaztu gabe eta gure eskubideak erabat errespetatu gabe. Honekin batera doazkizu aipatutako erantzuna eta aurkeztutako dokumentazioa, zuek balora dezazuen.*

*Azaldutako guztiagatik, informazioa eskuratzeko emandako erantzunari*

*que notifico la resolución.*

*En dicho recurso, y debido a la falta de concreción y opacidad de la entidad, se solicitaba la información correspondiente ,para poder verificar que nuestro hijo había sido tratado de una manera justa, objetiva y equitativa.*

*El día 23 de Diciembre de 2022 , hemos recibido, para nuestra sorpresa, una resolución del Gobierno Vasco , notificándonos la inadmisión del recurso por falta de legitimación y la remisión del mismo a la Junta del Consorcio para la Educación compensatoria de Bizkaia.*

*Ante la falta de resolución de nuestro recurso y viendo la intención de esta institución de dilatar innecesariamente el proceso , se procede a solicitar la información a través del consejo de Transparencia y Buen gobierno.*

*El día 18 de Enero hemos recibido la resolución de dicha solicitud en la que se nos indica que no hay ningún motivo para denegar el acceso a dicha información y se nos indica que ya se ha hablado con el Consorcio y éste, manifiesta que ya se nos ha facilitado dicha información*

*Ante todo lo expuesto, manifestó que no he recibido la información que he solicitado, lo único que he recibido de esta entidad, es un correo electrónico de fecha 24 de enero de 2023, en que una vez mas se me contesta de forma genérica , sin especificar nada y con total falta de respeto a nuestros derechos. Adjunto la mencionada contestación y documentación aportada, para que ustedes valoren.*

*Por todo lo expuesto, solicito se tenga interpuesto recurso ante su contestación de*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4SKZ-N1Q5-SKWN-YQVT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

*dagokionez errekurtsoa jarrikotzat jotzea eskatzen dut, eta, ebazpenak adierazten duen bezala, argi eta zehatz eskatu dugun informazioa eman diezagutela.*

*Era berean, adierazi nahi nuke Partzuergoaren erantzuna iraingarria iruditzen zaigula. Erantzun horretan esaten zaigu ospe handiko pertsonak partzuergo horretako kide direla, hori justifikazio nahikoa balitz bezala. Gu administratu hutsak izan arren, gure eskubideak errespetatzea espero dugu".*

*acceso a la información y tal y como expresa la resolución se nos facilite la información que clara y concisamente hemos solicitado .*

*Así mismo, me gustaría manifestar que consideramos insultante la contestación del consorcio en la que se nos dice que personas de gran prestigio forman parte de este consorcio, como si eso fuera suficiente justificación. Esperamos que a pesar de ser unos simples administrados, se respete nuestros derechos.*

Aurreko erreklamazioarekin batera Osabide Hezkuntzarako Partzuergoaren 2023ko urtarrilaren 24ko jakinarazpena aurkeztu zuen. Jakinarazpen horretan errekurtsogileak aurkeztutako eskaera eta errekurtsoei emandako izapideen berri eman zitzaion, eta Partzuergoak Osatuz programako plazak esleitzeko erabili dituen irizpideei buruzko hainbat gogoeta egin ziren.

A la reclamación anterior acompaña comunicación de 24 de enero del 2023 del Consorcio para la educación Compensatoria en el que se le informa de la tramitación que se ha dado a las peticiones y recursos presenytados por la recurrente y se realizan una serie de consideraciones sobre los criterios que ha utilizado el Consorcio para adjudicar las plazas del programa Osatuz.

Jakinarazpenarekin batera, Osatuz eta Bideratuz programen Onarpen eta Jarraipen Batzordearen 2023ko uztailaren 12ko bileraren akta aurkeztu da, Osabide Hezkuntzarako Partzuergoarena.

Se acompaña a la comunicación el acta de la reunion de la Comisión de Admisión y seguimiento de los programas Osatuz y Bideratuz de 12 de julio de 2023 del Consorcio para la Educación Compensatoria.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

LEHENENGOA.- Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzordea Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikuluaren bidez sortu da (aurrerantzean, *1/2016 Foru Araua, Gardentasunari buruzko Foru Araua edo Foru Araua*).

PRIMERO. -La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia (en adelante, *"Norma Foral 1/2016", "Norma Foral de Transparencia"* o *"Norma Foral"*).

29.1.1 artikuluaren arabera, 2. artikuluarekin lotuta (biak foru arau

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4SKZ-N1Q5-SKWN-YQVT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

honetakoak), Bizkaiko Foru Aldundiak, foru erakunde autonomoek, foru erakunde publiko enpresarialek, foru fundazioek, foru partzuergoek eta aurretik aipaturikoen desberdinak diren zuzenbide publikoko bestelako foru erakundeek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ukatzen badu Erreklamazio Batzordea izango da erreklamazioak ebazteko eskumena izango duena.

Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza eta funtzionamendu araudiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren ("*128/2016 Foru Dekretua*") bidez onartuak, 18. artikuluan ezartzen du Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela, besteak beste, honako hau: *"a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.*

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio ("*Decreto Foral 128/2016*"), establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: *"a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016."*

Aztergai dugun kasu honetan Gizarte Ekintza Saileko Administraziorako eta Gizarte Sustapenerako zuzendari nagusiaren ebazpen bati lotuta dagoen informazio publikoa eskuratzearen harira jarritako erreklamazio baten aurrean gaude.

En el caso que nos ocupa, nos encontramos ante una reclamación interpuesta en relación con una resolución de acceso a la informacion publica de Directora General de Administración y Promoción Social del Departamento de Acción Social

<u>BIGARRENA.-</u> Errekurritutako ebazpenean bi erabaki hartu dira, eta gure ustez, bateraezinak dira:

<u>SEGUNDO</u>.- En la resolución recurrida se realizan dos pronunciamientos que entendemos incompatbiles:

Lehenik eta behin, baimena ematen zaio gaur errekurtsogilea denari eskatutako informazioari buruz dauden datuei buruzko informazioa eskuratu ahal izateko.

En primer lugar, se autoriza a la hoy recurrente para poder acceder a la información relativa a los datos que se disponen sobre la información que se solicita.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4SKZ-N1Q5-SKWN-YQVT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Jarraian, adierazten da Bizkaiko Foru Aldundiko Umeen Zerbitzua ez dela Osatuz programa kudeatzen duen administrazioa, eta hori Osabide Hezkuntzarako Partzuergoaren erantzukizuna dela adierazten da.

Seguidamente, se señala que el Servicio de Infancia de la Diputación Foral de Bizkaia no es la administración que gestiona el programa Osatuz, sino que éste corresponde al Consorcio de Educación Compensatoria.

HIRUGARRENA.- Erakunde horrek Interneten argitaratzen duen informazioan jasotzen den bezala, Osabide Hezkuntzarako Partzuergoa erakundean Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak elkarlanean jarduten dute Bizkaiko Lurralde Historikoko haur, nerabe eta gazten gizarte- eta hezkuntza-arloan sortzen diren premiei aurrea hartzeko eta horietan esku-hartzeko pertsona horiek kalteberatasun-egoeran daudenean eta gizarteratzeko, laneratzeko edo hezteko arazoak dituztenean. Helburua da ohitura eta gaitasun espezifikoak ematea, orain eta etorkizunean egoera egokitzeko, ingurune normalizatuetan sartzeko eta euren bizi-proiektuari aurre egiteko ahalik eta autonomia handiena garatzeko.

TERCERO. Como se recoge en la información que publica en su pagina en internet, el Consorcio para la Educacion Compensatoria-Osabide Hezkuntzarako Partzuergoa, es una entidad en la que colaboran el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Bizkaia para prevenir e intervenir ante necesidades emergentes de carácter socioeducativo de la población infantil, adolescente y joven del Territorio Histórico de Bizkaia que se encuentra en situación de vulnerabilidad, y con problemas de inclusión social, laboral o educativa. El objetivo es dotarles de hábitos y competencias específicas que favorezcan, ahora y en el futuro, su adaptación al contexto, su inclusión en entornos normalizados y el desarrollo de la máxima autonomía para afrontar su propio proyecto de vida.

Partzuergo horrek, besteak beste, Osatuz programa kudeatzen du, eta honako helburu hauek ditu:

El citado Consorcio gestiona entre otros el programa Osatuz que tiene como objetivos:

- Portaera-arazo larriak dituzten haur eta nerabeei arreta terapeutiko eta hezitzaile espezifikoa eskaintzea eta garatzea, eskolan, gizartean eta maila pertsonalean ondo moldatzeko beharrezkoak diren tresnak emateko.

- Ofrecer y desarrollar una atención específica terapéutica y educativa a niños/as y adolescentes con graves problemas de conducta, que les proporcione las herramientas necesarias y óptimas para un desenvolvimiento competente a nivel escolar, social y personal.

- Ikasleari, haren familiari, hezkuntza-inguruneari eta gizarte-inguruneari zuzendutako esku-hartze terapeutiko eta

- Realizar una intervención terapéutico-educativa orientada al alumno/a, a su familia, al entorno educativo y al entorno social, ofreciendo a cada uno

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4SKZ-N1Q5-SKWN-YQVT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

hezitzailea garatzea, haietako bakoitzari esku hartzeko jarraibide zehatzak eskainiz, ingurune normalizatuan sartzea lor dezaten.

- Egoera emozionala hobetuko duten trebetasun sozial eta kognitiboak garatzeko estrategia eta baliabide pertsonalak ematea, norberaren ulermena eta pertsonen arteko harremana indartuz, harreman-testuinguru naturaletan sartzea lor dezaten.

- Ikastetxeko profesionalengan ezagutza sortzea, ikaslea eta dituen baldintzatzaileak hobeto ulertzeko eta esku hartzeko jarraibideak emateko.

*LAUGARRENA*.- Errekurtsogileak semea Osatuz programan sartzeko eskatu zuen, baina Osabide Hezkuntzarako Partzuergoak ez zuen onartu.

Eskaera onartu ez zenez, errekurtsogileak hainbat idazki eta jakinarazpen bidali dizkie hala Partzuergoari nola Aldundiko Umeen Zerbitzuari, eta ez onartze horrekin ez dagoela ados adierazi du. Halaber, parte-hartzaileak hautatzeko erabili diren irizpide eta baremoen berri emateko eskatu du.

Azaldutakoa aintzat hartuta ondorioztatzen da ez onartzearen aurkako errekurtsoen araubidea eta errekurtsogileak informazioa eskuratzeko egin zituen eskaerak aipatu den Partzuergoari aurkeztu behar zitzaizkiola eta berak erantzun behar zituela, eta ez Bizkaiko Foru Aldundiko Umeen Zerbitzuak, Partzuergo hori delako bere semea programan onartu ez duena eta

de ellos las pautas de intervención precisas, con el objeto de lograr su inclusión en un entorno normalizado.

- Proporcionar estrategias y recursos personales para el desarrollo de habilidades sociales y cognitivas que mejoren su estado emocional, reforzando la autocomprensión y la relación interpersonal que favorezcan su inclusión en contextos naturales de relación.

- Generar conocimiento en los y las profesionales del centro para entender mejor al alumno/a y los condicionantes que tiene y darles pautas de intervención.

CUARTO.- La recurrente solicitó el ingreso de su hijo en el programa Osatuz, participación que no fue admitida por el Consorcio para la Educación Complementaria.

Inadmitida su solicitud la recurrente ha dirigido diversos escritos y comunicaciónes tanto al Consorcio como al Servicio de Infancia de la Diputación mostrando su disconformidad con la dicha inadmisión y solicitando se le informe de los criterios y baremos que se han utilizado en la selección de participantes.

De lo expuesto se desprende que tanto el regimen de recursos frente a la citada inadmisión, como las solicitudes de acceso a la información que realizó la recurrente deben o debian dirigirse y ser contestadas por el citado Consorcio y no por el servicio de Infancia de la Diputación Foral de Bizkaia, por ser éste quien no ha admitido en el programa a su hijo y por estar en su poder la información cuya entrega se ha

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4SKZ-N1Q5-SKWN-YQVT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

emateko eskatu duen informazioa bere eskuetan dagoelako.

solicitado.

Aldundiaren Umeen Zerbitzuak aitortu egiten du ez duela Osatuz programa kudeatzen, eta kudeaketa hori Osabide Hezkuntzarako Partzuergoak egiten duela. Gure ustez horri igorri behar zitzaion egindako informazio-eskaera.

Reconociendo el Servicio de Infancia de la Diputación que no gestiona el programa Osatuz, sino que tal gestión se realiza por el Consorcio para la Educacion Compensatoria entendemos que debiera haber remitido a éste la solicitud de información cursada.

BOSGARRENA.- Azkenik, Batzorde honek adierazi nahi du gardentasun-araudiak ezartzen duenarekin bat *"informazio publikotzat hartzen dira titulu honen aplikazio-eremuan sartzen diren subjektuetako baten esku dauden eduki edo dokumentuak, edozein formatu edo euskarritan daudela ere, baldin eta beren eginkizunak betetzean eginak edo eskuratuak badira"*.

QUINTO.- Por ultimo, esta comisión quiere señalar que de acuerdo con la normativa de transparencia *"se entiende por información pública los contenidos o documentos, cualquiera que sea su formato o soporte, que obren en poder de alguno de los sujetos incluidos en el ámbito de aplicación de este título y que hayan sido elaborados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones."*

Aurreko definiziotik ondoriozta daitekeenez, administrazioek gardentasun-araudia betetzeko eman behar duten informazioa, betiere araudi horretan ezarritako mugekin, euren esku dagoena da.

De la definición anterior se desprende que la información que las administraciones deben facilitar en cumplimiento de la normativa de transparencia, siempre con los limites que en ella se establecen, es aquella que obra en su poder.

Aurkeztutako erreklamaziotik eta erreklamazioarekin batera aurkeztutako dokumentaziotik ondoriozta daiteke errekurtsogilea ados ez egotearen arrazoia ez dela administrazioaren edo gardentasun-araudiaren mende dauden erakundeen esku dagoen dokumentazioa emateari uko egitea, baizik eta Osatuz programan onartuak izan diren beste pertsona batzuekin alderatuta bere semea programan ez onartzea eragin duten baremo, irizpide edo puntuazioen motibaziorik edo adierazpenik eza.

De la reclamación interpuesta y de la documentación que se acompaña a la misma, cabe concluir que la disconformidad de la recurrente no deriva de la negativa a que le sea entregada documentación que se encuentre en poder de la administración o de las entidades sujetas a la normativa de transparencia, sino de la falta de motivación o expresión de los baremos, criterios o puntuaciones que han determinado que su hijo no sea admitido en el programa Osatuz frente a otras personas que si han sido admitidas en el mismo.

Nolanahi ere, zalantzarik gabe, errekurtsogileak semea Osatuz programan ez onartzearen aurka egin ahal

En cualquier caso es indudable la legitimación de la recurrente para poder impugnar la no admisión de su hijo en el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4SKZ-N1Q5-SKWN-YQVT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

izateko legitimazioa du, adingabe horrek deialdian parte hartu duelako eta deialdian onartutako pertsonen zerrenda ezartzen duen ebazpenak bere interesei eragiten dielako.

programa Osatuz, al haber participado en la convocatoria y resultar afectados sus intereses por la resolución que establece la relación de personas admitidas en el mismo.

Hori guztia dela eta, Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeak ebazpen hau ematea adostu du:

Por todo lo cual, esta Comisión de reclamaciones en materia de Transparencia, acuerda dictar la siguiente

## EBAZPENA

## RESOLUCIÓN

<u>Lehena</u>.- Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztutako informazio-eskaera, harekin batera doan dokumentazio guztia eta andreak Gardentasunari buruzko Gaietako Erreklamazioen Batzordearen aurrean aurkeztutako erreklamazioa Osabide Hezkuntzarako Partzuergoari igortzea.

<u>Primero</u>. – Remitir la solicitud de información presentada en la Diputación Foral de Bizkaia, junto con toda la documentación que se acompaña a la misma, y la reclamación presentada ante esta Comisión de Transparencia por al Consorcio para la Educación Compensatoria.

<u>Bigarrena.-</u> Ebazpen hau erreklamatzaileari eta Gizarte Ekintza Saileko Administraziorako eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea. Halaber, Ahaldun Nagusiaren Unitateko Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabineteko Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko zaio.

<u>Segundo</u>. - Notificar esta resolución al reclamante y a la Dirección General de Administración y Promoción Social del Departamento de Acción Social. Asimismo, se comunicará a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia del Gabinete de Estrategia Digital y Corporativa de la Unidad de Apoyo al Diputado General.

<u>Hirugarrena</u>.- Beste guztian, ebazpen hau behin betikoa da; administrazio-bidea amaitzen du, eta, beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, BI (2) HILABETEKO EPEAN, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

<u>Tercero</u>. – En todo lo demás, la presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS (2) MESES a contar del día siguiente al de su notificación.

Hori guztia, bat etorrita Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta funtzionamendu-

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4SKZ-N1Q5-SKWN-YQVT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

araudia onartzen duen uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren 27. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin.

Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Sin./Fdo.: MARIA BARRENA EZCURRA 2023-03-08
PRESIDENTE ETA TXOSTENGILEA
PRESIDENTA Y PONENTE

Sin./Fdo.: AMAIA ZURBANO-BEASKOETXEA LARAUDOGOITIA 2023-03-08
BATZORDEKIDEA
VOCAL

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4SKZ-N1Q5-SKWN-YQVT
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus